



GURE BALIOAK SARIA

GURE BALIOAK SARIA 2024

11. EDIZIOA

Kategoria:

Gizarte ekimena

1. edizioa

OINARRIAK

DEBEGESAk, Debabarreneko Eskualdeko Garapen Agentziak, Gure Balioak sarien hamaikagarren edizioa sustatu eta babesten du. DEBEGESA Debabarrena eskualdeko 8 udalen partaidetza duen elkarte da: Eibar, Elgoibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Mendaro, Ermua eta Mallabia. Eskualdeko hazkunde iraunkorra sustatzea du helburu, giza baliabideak eta baliabide materialak mugituz, balio erantsia emanez eta modu proaktiboan.

Esparru horretan kokatzen da Gure Balioak proiektua, zeinaren helburua Debabarrenak **garapen iraunkorra sortzeko beharrezkoak diren balio sozialak indartzea** den, jasangarritasuna ingurumenaren ikuspegitik ez ezik, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik ere ulertuta.

Sari honek indartu eta aitortu nahi dituen funtsezko balioak **integritatea, errespetua, ekintzailtza eta lankidetz**a dira. Azken batean, sari hau definitzen duen filosofiari jarraituz, DEBEGESAk Debabarreneko pertsona eta/edo erakunde guztiak babestu eta balioestearen aldeko apustua egin du, baldin eta horien bizi-ibilbidea edo bultzatutako ekimenak DEBEGESAk eskualdearentzat duen misioari laguntzen badiote: gure lurraldean garapen iraunkorra sortzea, non aberastasuna sortzearekin batera gizarte-kohesioa eta ingurumenarekiko errespetua lortzen diren.

1. **ALDIZKAKOTASUN**: bi urtekoa.

2. **HELBURUAK**

1. Debabarrenean gizarte-balioak sustatzea, eta haien egoerari eta premiari buruzko hausnarketa-prozesu bat sortzea.
2. Herritarrak eta gizarte-eragileak sentibilizatzea Debabarrenaren garapen jasangarri eta lehiakorrerako giltzarri gisa identifikatutako lau balioen garrantziaz.
3. Eskualdeko pertsona/erakunde baten ibilbidea ezagutzea, lau funtsezko balioetako bat ordezkatzuz.
4. Ekimen ekintzaileei balioa ematea, bai enpresaren esparruan, bai gizartean.
5. Gazteriarekin eta bere balioen ikuspegiarekin konektatzea eta horien artean eskualdeko balioak sustatzea.

KATEGORIA: “GAZTE EKIMENA” ekintzailatza sariaren oinarriak

1. Sariaren helburua

Debabarrena lurralde solidario eta berritzailea izan da historikoki. Bertan hainbat ekimen sortu ziren, hala nola ALFA Euskal Herriko lehen kooperatiba, Armagintza Eskola, 1912an Espainian sortutako lehen eskola profesionala, non lanbide baten ikaskuntzarekin batera irakaskuntza teorikoak eta teknikoak ematen ziren, DANOBAT talde kooperatiboa eta beste hainbat ekimen sozial.

Horregatik, 2024an gizartean eragin positibo esanguratsua duten elkartasun-helburuekin proiektu berritzaile eta iraunkorrak garatu dituzten edo garatzen ari diren gizarte-erakundeak aitortu eta lagundu nahi ditugu, komunitateen bizi-kalitatea hobetuz eta ongizate orokorra sustatuz.

2. Nork aurkez ditzake hautagaitzak

- Debabarreneko gizarte-eragileak:
 - Herritarrak
 - Enpresak
 - Elkartek, fundazioak.
 - Ikastetxeak/prestakuntza-zentroak
 - Ikerketa-zentroak
 - Erakundeak

- Norbanakoen ekimenez.

Hautagaitza aurkeztu nahi duen pertsona orok bere burua identifikatu beharko du, ez da hautagaitza anonimorik onartuko.

3. Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Erakunde hautagaiek hau egin beharko dute:

- Irabazi-asmorik gabeko erakundea, elkarte zibila, kooperatiba edo formalki eratutako beste edozein erakunde sozial izatea.

- Gutxienez urtebete funtzionamenduan izatea.
- Proposamen berritzailea eta gizartean eragin positiboa duena aurkeztea.
- Proiektuaren emaitza nabariak eta neurgarriak frogatzea.
- Legez eraturata egotea.
- Debabarrenean egoitzaren bat izatea edo bere proiektua edo ekimena Debabarrenean garatu izana.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

4. Aurkeztu beharreko agiriak

Erakundeek honako hauek aurkeztu behar dituzte [formulario honetan](#):

- Eratze-aktaren kopia eta erakundearen estatutuak.
- Proiektuaren laburpen exekutiboa (gehienez 2 orrialde).
- Proiektuaren deskribapen zehatza (gehienez 10 orrialde), honako hauek laburbilduta:
 - Helburuak.
 - Pertsona edo talde onuradunak.
 - Inpaktu soziala.
 - Esku-hartze eredua, erabilitako metodologia, garatutako ekintzak.
 - Orain arte lortutako emaitzak.
 - Dokumentazio grafikoa (halakorik balego).
- Zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Sariaren diruaren erabileraren justifikazio laburra. 2025eko lehenengo hiruhilekoa amaitzean, diruaren erabilera justifikatzeko frogak aurkeztuko dira, hilabeteko epean dokumentazioa bidaltzeko (2025eko apirilaren 30 arte. Data hau luzatu daiteke justifikatuta badago).

Goian aipatu bezala, dokumentu hauek guztiak [formularioaren](#) bitartez bidali behar dira erantsita. Arazoren bat izanez gero, marketing@debegesa.eus helbidera bidaliko dira.

5. Hautaketa-prozesua

Hautaketa hiru fasetan egingo da:

- 1. Aurrehautaketa:** DEBEGESAko teknikariek osatutako batzorde batek aztertuko du aurkeztutako dokumentazioa eta hautagaitzak aukeratuko ditu, parte hartzeko irizpideak betetzen dituztela kontuan hartuta.
- 2. Ebaluazioa:** aurrez hautatzeko prozesua gainditu duten hautagaiek beren proiektuak aurkeztuko dituzte ekintzailatza sozialean, berrikuntzan eta jasangarritasunean adituak diren eta proiektu bakoitzari bere puntuazioa emango dioten epaimahai baten aurrean. Epaimahaia Debabarreneko gizarte, gizarte esparruko lau pertsonak osatuko dute. Saria finantzatuko duen erakundea epaimahaikideetako bat izango da. Debegesak ekitatea lortu nahi du epaimahaikideen generoari, banaketa geografikoari eta eremu profesionalari dagokienez. DEBEGESAk kalitate-botoa eta berdinketa hausteko botoa izango ditu (hala badagokio).
- 3. Azken hautaketa:** epaimahaiak erakunde irabazlea aukeratuko du, puntuazioak alderatu eta azken eztabaida egin eta gero.

6. Ebaluazio-irizpideak

Proiektuak honako irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- Berrikuntza eta sormena.
- Talde hartzailea eta bazterketa edo premia egoera.
- Proiektuaren irismena (zenbat pertsonari eragiten dion).
- Inpaktu soziala, lortutako lorpenak.
- Estalitako beharraren garrantzia.
- Iraunkortasuna eta eskalagarritasuna.
- Boluntarioen parte-hartzea eta komunitatearen ahalduntzea.

Epaimahaiko kideei txantilo bat emango zaie, proiektu bakoitzari esleitutako puntuazioa jaso dezaten.

7. Saria

- Saria eskudirutan: 2.000 euro (Orbea enpresak babestua).
- Proiektua ikusaraztea eta sustatzea, komunikabideen eta sare sozialen bidez.

8. Egutegia

Fasea	Data
Deialdiaren hasiera	2024ko irailaren 4a
Inskripzioak jasotzeko azkeneko eguna	2024ko urriaren 11
Egiaztatzea eta ebaluatzea	2024ko urriaren 12 eta 25 bitarte
Epaimahaiaren izendapena eta erabakia	2024ko urriaren 28 eta 31 bitarte
Erakunde irabazlearen jakinarazpena	2024ko azaroaren 4a
Sari-banaketa	Azaroaren egitea aurreikusten da. Data zehatza aurrerago jakinaraziko da.

9. Hautagaitza irabazleak

Hautagai irabazle bat aukeratuko da, eta beste bi bigarren eta hirugarren lekuan. Erakunde irabazleak ezin badu saria jasotzera joan, berak izendatutako beste edozein pertsonak jasotzea onartuko da.

Hautagaitza irabazleak uko egiten badio sariari, bigarren hautagaitza bozkatuenari emango zaio, eta horrela, hurrenez hurren, hirugarrena arte. Horietako batek ere ez badu saria onartuko, saria eman gabe geratuko da.

Epaimahaiaren iritziz hautagaien batek behar besteko mailarik ez badu edo sariaren helburuekin eta balioekin bat ez badator, eman gabe utz daiteke.

10. Baldintza orokorrak

- Parte hartzen duten erakundeek onartzen dute emandako informazioa saria sustatzeko erabil daitekeela.
- DEBEGESAk eskubidea du sariaren datak eta baldintzak aldatzeko, beharrezkoa bada.
- Sarian parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.

11. Kontaktua

Edozein kontsulta egiteko, erakunde interesdunak hemen bidez jar daitezke harremanetan:

- Posta elektronikoa: marketing@debegesa.eus
- Telefonoa: 943 82 01 10 (Larraitz)
- Web orria: www.debegesa.eus